



## Martxoaren 3an zabalduko da Bertso Udalekuetako lehen izen-ematea

**Bertso eskoletako kideek zein gurasoren bat Bertsozale Elkarteko bazkide dutenek eman dezakete izena lehenengo epe honetan; behin hori itxita, bigarren izen-emate epea irekiko dugu.**

Oraindik udaberriaren atarian bagaude ere, udako planak egiteko garaia iritsi da: bertso udalekuetan izena emateko sasoa. Martxoaren 3an jarriko dugu martxan izen-ematea, 11:00etan, eta [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian jarriko dugun galdetegiaren bidez egin ahal izango duzu. Gorabeherarik sortuz gero, Bertsozale Elkarteko telefonora dei dezakezu (943 69 41 29).

Lehenengo izen-emate epe horretan bertso eskoletako kideek zein gurasoren bat Bertsozale Elkarteko bazkide dutenek eman dezakete izena; martxoaren 16ra arteko tartea izango dute horiek. Bertsozale Elkarteko bazkide egin nahi baduzu, [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) webgunearen bidez duzu aukera. Behin lehen epealdia amaituta, izen-emateko bigarren txanda irekiko dugu martxoaren 19an, txandetan geratzen diren tokiak osatu arte. Txandak osatzeko, izen-emate ordena hartzen dugu kontutan; beraz, etortzeko gogoz bazaude, bizkor ibili!

### Lau txandak, uztailen

Urtero moduan, aurtengo udalekuetan ere lau txanda izango ditugu, gaztetxoan adinaren arabera bananduta. Izen ematerakoan, txanda aukeratu beharko duzu. Hurrengoak dira:

#### Uitzi (Nafarroa)

- Uztailak 7-13
- 2012-2013 urteetan jaiotakoak

#### Bidarrai (Baxenabarre)

- Uztailak 14-23
- 2007-2009 urteetan jaiotakoak

#### Zuhatza (Araba)

- Uztailak 25-29
- 2014-2016 urteetan jaiotakoak

#### Sarria (Araba)

- Uztailak 24-30
- 2010-2011 urteetan jaiotakoak

Txandei buruzko informazio zehatzagoa [www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus) atarian duzue.

Bertan ikusiko dituzue zeintzuk diren aterpetxeak, egonaldien prezioak, eta bestelako hainbat datu ere bai.

Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak babesten dute Bertso Udalekuen egitasmoa, eta Irizarrek laguntzen du.

Animatu zaitetz eta zatoz zu ere bertsoan gozatu eta Euskal Herri osoko lagunak egitera!



**MAIDER ARREGI MARKULETA**

**HITZETIK HORTZERARAKO EGINDAKO BERTSO SORTA MUSIKATUA.**

Makillajez estali genuen kutisa eredutzat hartuta Espainiako missa hamalau urterekin handitzeko prisara gura barik zabaltzen zitzaigun pelbisa emakume bihurtu nahi bagenu gisa.

Sorta osoa eta Hitzetik Hortzeran eskainitako beste sorta guztiak: [bertsozale.eus](http://bertsozale.eus) atarian.



Lau txanda izango dira aurtengo Bertso Udalekuetan. //XDZ.

# Martxoaren 16an egingo dugu Batzar Nagusia, Senpereko Larraldean etxean

Euskal Herriko Bertsozale Elkarteen 2024 urtearen errebasoa eta datorrenaren kokapena egiteko Batzar Nagusia antolatu dugu. Herrialdeetako Batzarrak ere otsailean eta martxoan izango dira; Arabako Bertsozale Elkartek urte hasieran egin zuen berea.

Urtero bezala, laster izango dira Bertsozale Elkarteko Batzar Nagusiak. Euskal Herriko Bertsozale Elkartek martxoaren 16an egingo du berea Senperen, Larraldean etxean (Amoze auzoa), igandearekin. Goizeko 10:00etatik 10:30era ongietorria egingo dugu, kaferako tartearekin. Batzarra, berriz, 10:30ean hasiko da, eta 12:30ak arteko tarte aurrekusi dugu amaierarako.

Hurrengoa izango da gaitegia:

1. Sarrera
2. 2024ko memoriak eta 2025eko egitasmoak
3. 2024ko diru kontuak eta 2025eko aurrekontuak
4. Herrialdeen irakurketa



Agurainen egin genuen 2024ko Batzar Nagusia; Senperen izango da aurten. //XDXZ

Batzarra bukatu ondoren, bazkaltzeko aukera egongo da Senpereko Kattalin Elizalde kolegioan. Bazkaltzera geratu nahi bazenu, [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian eros dezakezu txartela.

## Herrialdeetako batzarrak ere, otsailean eta martxoan

Arabako Bertsozale Elkartek urtearen hasieran egin zuen bere batzarra, Kuadrillartekoaren aurkezpenarekin batera. Nafarroako Bertsozale Elkartek ere egin berri du, eta gainerako herrialdeek martxoan egingo dituzte. Hurrengoa izango da batzar guztien egutegia:

- **Arabako Bertsozale Elkartea:** urtarrilaren 18an egin zen, Gasteizen.
- **Nafarroako Bertsozale Elkartea:** otsailaren 22an egin zen, Lesakan.
- **Bertsularien Lagunak Elkartea:** martxoaren 9an, Larraldean, Senperen.
- **Bizkaiko Bertsozale Elkartea:** martxoaren 13an, Larrabetzun.
- **Gipuzkoako Bertsozale Elkartea:** martxoaren 13an, Mendaron.
- **Euskal Herriko Bertsozale Elkartea:** martxoaren 16an, Larraldean, Senperen.

Zure zain izango gara, bazkide!

## Bertsoaroa: urtez urte, sustraiak indartzen

Bukatu da aurtengo Bertsoaroa eta saioen «balorazio positiboa» egin dute antolatzaileek. Saio guztietan «ikusle mordoa eta giro ederra» izan da.

Ondo errotuta dagoena eta fruitua ematen duena, zertarako aldatu? Adibide horietako bat da Bertsoaroa. Iruñerrian sustraituta dagoen ekitaldiak 34. aldia du aurtengoa.

Otsailaren 4an eman zitzaion hasiera, abenturaz eta umorez jositako bertso-tramarekin. Aurtengo aldiaren nobedadeetako bat izan da bertso-trama, eta ikusleek eskertu dute berrikuntza. Kondestable Civivoseko patioan egin zen saioa, eta etxeko terrazan nola, hala sentitu ziren ikusleak: goxo eta gertuko. Aurtengo beste berrikuntzetako bat 'Iruñeko Historia Bertsotan' saioa izan da. Hiriburuko historian eta istorioetan murgildu ziren ikusleak, Joseba Asironen kontakizunak eta Ainhoa Larretxeak jarritako gaien baitan Saioa Alkaizak eta Sustrai Colinak kantatutako bertsoak entzunda.

Horrez gain, ohikoagoak diren bertso jaialdiak eta tailerrak izan dira. Horiek ere «erantzun ona» izan dutela baloratu dute antolatzaileek, jende asko erakarri dutela eta «giro ederrean» ospatu direla.

## Entzuleak urtero gora

Saio guztiek «erantzun polita» izan dutela azpimarratu dute: «ikusleen kopuruak gora egin du berriro». Bereziki bertso saio historikoan jarri dute azpimarra. Izan ere, antolatzen den lehen aldia izanda, ez zekiten zer nolako harrera izango zuen. Asmatu dute, ordea, 300 lagun inguru elkartu baitziren saioan. Honek, aurrera begira «formatu berriak esploratzen jarraitzeko gogoa piztu digu».

Bertsoaroak unean uneko bertsolaritza, kalitatez eta aniztasunez Iruñera ekartzeko helburua du, eta, antolatzaileen ustetan, aurten ere helburua bete da: «jendea bertsoa entzuteko gogoz dago eta formatu berriak eskertu ditu. Adin ezberdinetako bertsolari zein bertsozaleak gurturatu dira saioetara».

# Hastear da Eskolartekoa, gazteak bat-batean jendaurrean aritzeko ekimena

**Martxoan hasi eta ekainera bitarte herrialde guztietan egingo dira eskolartekoak. Haur eta gazteek jendaurrean bat-batean kantatu ahal izateko aukera ematen du ekimenak.**

Udaberriaren atarian iristen dira lehenengo eskolarteko saioak eta urtaro osoan izango da gazteak bertsoan entzuteko aukera. Ekimen honek gaztetxoek jendaurrean bat-batean jarduteko aukera ematen die; eta, horrez gain, harremanak egiteko, hurbilekoak bertsozaletzeko eta antolakuntza lanetan ardurak hartzen hasteko izaten da eskolartekoa.

Aurtengoan ere Gipuzkoa izango da eskolartekoa abiatuko duen lehenengo herrialdea. Hurrengo data eta lekuetan izango dira kanporaketak: martxoaren 7an Errezilgo Herniope Elkartearen, martxoaren 14an Aretxebaletako Urbeltz elkartearen, eta martxoaren 21ean Amasako elkartearen eta Aizarnazabalko Mikel elkartearen. Finala Azpeitian izango da, apirilaren 4an, Elikagunean.

Nafarroan ere hilabete berean hasiko da eskolartekoa. Bi kanporaketa egingo dira, biak, martxoaren 28an; Doneztebeko Herrigunean bata, eta Iruñeko Zaldiko Maldiko Elkartearen, bestea. Finala apirilaren 11n izango da Pikuxarren, Irurtzunen.

Apirilaren hasieran hasiko dira bizkaitarrak eskolartekoarekin.

Apirilaren 2an, 7an eta 9an jokatuko dira kanporaketak, Galdakaon, Gordexolan eta Igorren, hurrenez hurren. Aurten, berrikuntza gisa, idatzizko finala bi egunetan banatuko dute: maiatzaren 30ean izango da Lehen Hezkuntzako 6. mailako finala eta maiatzaren 31an nagusiagoena. Bat-bateko finala ere martxoaren 31n izango da. Biak izango dira lurretan.

Maiatzera arte itxaron beharko dute arabarrek. Kanporaketak maiatzaren 8an, 9an eta 16an izango dira, Aramaion, Gasteizen eta Kanpezun. Finala maiatzaren 24an izango da, Aramaioko kultur etxean, 19:00etan. Txikien saioa ere egun berean izango da.

Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako gazteek maiatzaren 24an izango dute sailkatze saioa (lekua finkatzeke). Finala, berriz, ekainaren 7an izango da Itsasun.

Herrialde bakoitzetik sailkatutako gazteek Euskal Herriko finala jokatu dute. Ekainaren 14an izango da Arantzan (Nafarroa), 16:30ean hasita.



Herrialdeetako kanporaketekin hasiko dira eskolartekoak. //XDZ

## Aste honetan abiatuko dira Arabako Kuadrillartekoaren finalerdiak

**Bertso egunen fasea bukatuta, finalurrekoak jokatu dira hurrengo asteburuetan; finala Gasteizen izango da, apirilaren 5ean.**

Amaitu da Arabako Kuadrillartekoaren lehenengo fasea. 14 bertso egun egin dira eta herrialdeko eskualde guztietan antolatuta dira saioak. Kanpoko zein barruko ekitaldiak izan dira: bertso poteoak, koplak saioak, bazkariak, aretoetako saioak... denetarik egon da.

Fase hori bukatuta, finalurrekoen fasean sartuko dira aste honetan. Lau jokatu dute guztira: otsailaren 28an, Narbaizan;

martxoaren 9an, Aramaion, martxoaren 15ean, Amurrión; eta martxoaren 23an, Gillernan. Finala apirilaren 5ean izango da, Gasteizen.

Finalerdietarako zein finalerako sarrerak [www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus) atarian dituzue eskuragai.





## Puntua jarrita

AMAIA ELIZAGOIEN VARELA

Malen, bertsoak elkartu gintuen behin, eta ordutik aunitzetan izan gara elkarren konplize. Sormena den kate honetan, aipatu izan dugun bezala; zein ederra den katearen parte izatea eta aldi berean, zein zaila geure buruari leku hori aitortzea.

Taldeak, ordea, dena eraldatu dezake. Lagunei kantuan ari garenean, ez diogulako bakarrik gai bati kantatzen, ate bat zabalik uzten dugu, solaserako, galderentzako... Zuk gaur bota didazun puntua bezalakoa, adibidez. Erantzunak ordea, beti ez dira agertzen, ez behintzat espero ditugun moduan.

Ez dakit ziur zer kontatzeko balio duen bertsoak. Sinetsita nago, pertsona orok badugula zer erran eta batzuetan eragiteko grina. Bertsoaren bitartez, mundua ikusteko dugun prismatik irudi batzuk erreskatatzen eta ahalik eta modu txukunenean editatzen saiatzen garela esango nuke. Elkarbanatzeak ematen duen plazer hutsagatik gehienetan, batzuetan inguratzen gaituena ulertzen saiatzeko edo ulertzen laguntzeko ahaleginean, eta nola ez, barruan dugun jostaria asetzeko desiraz.

Gai baten aurrean bertsoak zer helarazteko balio duen baino, bere osotasunean bertsoaren jolasa abiatzen den momentutik kontatzen dena iruditzen zait interesgarria eta baliotsua. Jolas hau nik ulertzen dudun moduan behintzat, kantuan hasi aitzinetik abiatzen da, elkartzen garen momentuan hain zuzen. Agian nor eta zer garen kontatzeko balioa du bertsoak, ez dakit. Dakidana da, maite dudala ahal dudun guztietan bertso eskolara joatea, zuek entzutea, zuekin jolastea eta etxean sentitzea.

Iker, lehengusu eta bertso kide zaitut; laguna. Ordu asko igaro ditugu bertso eskolan eta zuk are gehiago bertso-irakasle lanetan zabilzaneetik. Orain aita zarela, bertsoa eta honen transmisioa beste prisma batetik ikusten dituzula esango zenuke?

# Koplak

## Hilabete bukaeran iritsiko da Bapatean 2024 etxeetara

Bapatean 2024 bertso eta informazio bilduma laster iritsiko zaizue etxera. Bertsoaldien audioa eskatu duzuenoi hurrengo egunetan ailegatuko zaizue posta elektronikora bertsoak deskargatzeko esteka. Bata ala bestea epearen baitan eskatu ez zenutenok Bapatean 2024 Bertsoaldizaren Datu Basean topatuko duzue; bai **liburua**, baita **audioa** ere. Gozatu bertsoak irakurriz zein entzunez!

# Poto-Finixa



## Otsailaren 28an jokatu da Bertsoxurlaren finala

Bikoteka jokatzeko den lagun arteko lehia da Bertsoxurla, eta 16 eta 22 urte bitarteko Euskal Herri osoko bertsoari gazteek kantatzen dute. Bi sailkatze saio jokatu dira dagoeneko eta finala besterik ez da geratzen: Hazparneko Xuritea ostatuan izango da, otsailaren 28an, 19:00etatik aurrera. Hurrengo bikoteak izango dira kantuan: Aritz Katarain eta Irantzu Idoate, eta Haizea Telleria eta Lide Arregi.



PUBLIZITATEA